



## Tantoz tanto, aurrera

Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko Txapelketako partidak jokatu dira Loidi-Barren pilotalekuan / 10

TXINTXARRI

## Euskararen festarik ez

Euskararen X. Maratoia atzeratzea erabaki dute Ttakuk KEk eta Lasarte-Oriako Udalak / 6

Nafarroako erresumaren inbasioaz idatzi du **lñaki Lopez de Luzuriagak** / 5

Bi harrera-familien testigantzak irakurgai, familia eredu ezberdinen argitalpenean / 8-9

SERIEA

## 2 mó progresibo

*erreflexuen aurkako lenteekin*

# 229€

+  
ukipen-lenteak opari

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Eugenia Silva

R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

## MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

# Bederatzi puntutatik bi mahai gainean utzita

Enbe eta EHNE taldeek aurkeztutako bi mozioak mahai gainean uzteko erabakia hartu du udal korporazioak. Horrekin batera, besteak beste, Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Planaz ere aritu dira; aho batez onartu dute

## Txintxarri

Lourdes Acevedo alkateordeak gidatu du maiatzeko ohiko udalbatzarra, Agustin Valdivia ezin izan baitu eztabaida saioan izan, eta Lasarte-Oriako familientzat eskola-materiala erosteko eta merkataritza laguntzeko diru-laguntzen oinarriak aldatzeko proposamenarekin ekin diote saioari. Zuzenean bozketa egin dute; denak bat etorri dira, eta aho batez onartuta geratu da.

Enpresa batzordearekin adostutako Arrazionalizazio-Planaren onarpenaz aritu dira gero, eta kasu horretan bai, bozketari ekin aurretik eztabaidarako tartea zabaldu dute.

EAJko Boris Nogalesek hartu du hitza. Esan du eztabaida saiora aurkeztu den Arrazionalizazio-Plana ez dela eurek aurkeztu nahiko luketena eta hala jakinarazi zutela barne-erregimeneko batzordean ere. Gaineratu du bere alderdia ez dagoela "inolaz ere" langileen erretiro aurreratuaren primak jasotzearen aurka, baina Arrazionalizazio-Planak, eztabaidara ekarri zenak baino anbizio handiagoa izan beharko lukeela.

Puntua bozkatu dute jarraian eta horrela geratu da emaitza: ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos eta EAJ abstentitu egin dira, eta, EH Bilduk eta PSE-EEK, berriz, alde egin dute. Gauzak horrela, aurrera egin du puntuak.

Hurrengo puntura pasa aurretik, bozka-azalpena egin du EH Bilduk; Jon Martinek hartu du hitza. Azaldu du baiezko bozka "kritikoa" eman dutela. Haien ustez, planak "osatuagoa" beharko luke; gai gehiagori erantzun beharko lioke, eta "anbiziosoagoa" izan beharko luke. Onartu dute, ordea, gaur-gaurkoz udalak dituen antolakuntza-arazoei "modu urgentean" erantzuteko bide ematen diola.



Udal korporazioa iragan ostegunean egindako ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Hirugarren puntuan Lasarte-Oriako Udalak eta Agintaritzaren Partzuergoak sinatu behar duten Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmenaren onarpena eskatu dute. Zuzenean bozketa egin dute, eta aho batez onartuta geratu da. Laugarren puntuan, aldiz, Lasarte-Oriako bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuan tarifak integratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena onartzea eztabaidatu dute. Gai hori ere, eztabaidarik gabe, aho batez onartu dute.

Lasarte-Oriako 2021-2025 Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasun Planaz aritu dira gero; bosgarren puntuan. Aurrera egin du aho batez, eta bozketaren ostean hartu dute hitza alderdi ezberdinetako ordezkariak.

ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdi izan da lehena. Argitu dute planak ahalbidetuko duela "beharrezkoak" diren "akzio eta neurriak" lehenbailehen martxan jartzea.

EH Bilduko Uxue Loinazek hitz egin du gero. Esan du "ezinbestekoa" iruditzen zaiela Berdintasun Plana abian jartzeko berdintasun masterra duen gizarte langilea kontratatzea. Lehenetsi dute, gainera, kontratazio hori

"azkartasunez" egitea. Gaineratu du EH Bildurentzat bigarren plan hori ez dela "herriko errealitatera" egokitzen.

Seigarrena eta zazpigarren puntuetan, abeltzain eta otsoen gaineko gaia mahai gaineratu bezain laster, mahai gainean geratu dira, korporazioak hala erabakita.

Galdera eta erreguen tartea zabaldu aurretik EH Bilduren mozio bat eztabaidatu dute. Herriko elkarte gastronomikoei zaborren-tasan hobaria aplikatzea eskatu du alderdiak.

Gaiak sortu du eztabaida apur bat, eta puntuka bozkatzeko eskaera egin dio EAJk. Eskaera onartu eta hala egin dute.

Bi puntuko mozioa aurkeztu dute. Lehenengoa, aurkako bederatzi bozkekin bertan behera geratu da, eta, bigarrenak aurrera egin du.

Hainbat izan dira galdera eta erreguen tartera ekarri dituzten gaiak: Udalbatzarretara herritarrek bueltatzea; protestan aritu diren udal eraikinen garbitzaileen gaiaz; Zataraingo obretan ur-hodi batean gertatu den matxuraz; lurrazpiko zaborontzien galdeketa emaitzaz eta Somoto auziaz aritu dira tarte horretan. Puntu bakoitzari bere erantzuna eman dio David Mateos Zerbitzu Publikoen buruak.

## Zenbait subjektuk administrazio prozedurak sarean egingo dituzte

Administrazioan tramite elektronikoak burutzeko jarraibideak eman ditu Lasarte-Oriako Udalak

### Txintxarri

APAPEL Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen legearen arabera, zenbait subjektuk honako hau gauzatu behar dute maiatzaren 15etik aurrera: bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzea administrazio publikoekin, prozedura bati ekin eta edozein izapide egiteko.

APAPEL legea tarteko, zenbait subjektuk elektronikoki gauzatu behar dituzte administrazio-tramiteak. Esate baterako, hauek guztiek: pertsona juridikoen (elkartek, sozietatek, enpresek...); nortasun juridikorik gabeko pertsonak, hala nola ondasun- eta jabe-erkidegoek; lan egin ahal izateko kolegiatu behar duten ogibideetako kideek (abokatuek, arkitektoek...); eta arestian aipatutako edozein pertsona edo erakunde ordezkatzeko dituztenek.

Horren eraginez, subjektu guzti horiek izapidetze-egoitza elektronikoa aurkeztu beharko dituzte Udalari zuzendutako eskabideak eta beste dokumentu batzuk. Jakinarazpen horiek interesdunaren edo baimendutako



Udaletxeko harrera. TXINTXARRI

edozein ordezkariaren eskura jarriko dira, "postontzi segurua" delakoan. Ohartarazpena jaso eta hamar egunera, interesduna edukia irakurtzera sartzen ez bada, Udalak jarraitu egingo du izapidearekin, salbu eta hartzaileak egiaztatzen badu teknikoak izan dela jakinarazpena eskuratzea.

Lasarte-Oriako Udalaren egoitza elektronikoa sartzeko eta, behar izanez gero, sinatzeko, ziurtagiri mota hauek onartzen dira: BakQ, NAN agiria, IZENPERen sinadura elektronikoa aitortuaren ziurtagiriak eta FNMT, besteak beste.



TXINTXARRI

## Auzoz auzo, ikasten

Estalki azpian jarrita gauzatu zuten Zumaburuko Isla plazan baratze tailerra, maiatzaren 15ean. 11:00etatik 13:30era bitartean dozena bat haurrek parte hartu zuten. Dinamizatzaileak ezagutza teorikoak eta alderdi praktikoa uztartu zituen. Hala, batetik, azalpenak eman zizkien loreen zatiei buruz, horien ugalketa prozesuaz...eta bestetik, uretan bustitako kotoi artean lekaleak jarri zituzten parte-hartzaileak.

# Ekonomia eta jarduera fisiko inklusiboa hizpide

Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako 'Herrigintzen' zikloko bi solasalditan parte hartu dute herritarrek. Maiatzaren 26an eta 27an izango dira beste biak, udal euskaltegian zein Mercero aretoan, 18:00etan. Gaiak, hauek: herri hezitzaileak eta parte-hartzea

## Txintxarri

Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako *Herrigintzen* solasaldi-zikloa hasi da: *Ekonomia jendarte baten beharrei erantzuteko tresna gisa* mahai inguruan parte hartu zuten Hernaniko alkate Xabier Lertxundik, Kool Studioko jabe Karmele Salsamendik eta Argia Kazetaritza Independienteako kide Estitxu Eizagirrek, maiatzaren 18an.

Hernaniko alkatea da Xabier Lertxundi, eta hark gidatutako gobernu-taldeak 25-28 milioi euro arteko aurrekontua kudeatzen du urtero. Haren aburuz, gakoak datza "gauzak egiteko moduan", joera tradizionala eta logika kapitalista apurtzean; ekonomia sozial eraldatzailearen bitartez, aldaketak egiten hastean. "Tokiko garapen jasagarria bultzatu behar dugu, eredu demokratikoagoa baita; kontua ez da ondasunak pilatze hutsa, gizarteko kideek elkarrekin jardutea baizik".

Kool Studio. Horrela izena du Karmele Salsamendi herritarren proiektuak. Blas de Lezo kalean dago, eta barrura sartzen denak, mota askotako produktuak ikusi eta erosi ahalko ditu. Guztiek dute



'Ekonomia jendarte baten beharrei erantzuteko tresna gisa' hitzaldia. TXINTXARRI

ezaugarri komun bat: moda jasangarriaren ardatzetik sortuak izan dira, eta elkarlanetik. Eragile ugariarekin kolaboratzen jarraitzen du Salsamendik: Izan Inurri egitasmoarekin, esate baterako; minbizia pairatzen ari diren familiak laguntzen dituzte proiektu horretako kideek. Une hauetan, eritasun horrengatik ilea galdu duten pertsonentzako zapiak egiten ari dira.

Argia aldizkaria egiten duen lantaldeko kideetako bat da Estitxu Eizagirre. Mercero gunean azaldu zuen nolakoa izan zen hedabide horretako soldaten sistema aldatzeko prozesua. "Lan egiteko moduari

buruz hitz egin genuen, gutako bakoitzak zituen ardurei buruz, soldatek eta ekonomiak zer-nola eragiten duten botere-harremanetan...". Eizagirrek adierazi zuen eztabaida "oso sinplea" izan zela: "Mahai gainean jarri genuen nolako eredu nahi genuen: eskailera mantendu, batzuk gorago besteak baino, ala beste eredu baterantz jo; sorpresa hartu genuen, denok nahi genuelako ordura artekoa aldatu".

Maiatzaren 20an egin zuten bigarren hitzaldia, jarduera fisiko inklusiboan gainean. Joxan Unsain, Izar Agirretxe eta Beñat Larrañaga solastu ziren gai horri buruz.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

## Kartografia imposibleak

Kale estuari edo etheen arteko pasabideari deitzen zaio karkaba. Lasarte-Orian bada bat —bakarra—, santu izena duena eta kale itsua dena. Santa Ana egunez biziberritzen da eta kolorez jantzi. Dantza egiten diote kalekari. Txistua eta danbolina jo, zapi gorria lepotik lotu eta herrian barna abiatzen da kalejira. Arratsaldean, berriz, desfilea izaten da uztailearen 26ero, herrian antolatzen diren halako egitasmoek segitzen duten ohiko ibilbidean: Zumaburutik irten, Kale Nagusian gora egin, Tajamarreko biribilgunean buelta eman, "Lasarte" dioen eskultura eskuin aldean utzi, eta bira Pablo Mutiozabal kalera. Ostera ezkerretara, Iñigo de Loiolan barna, Manuel Lekuona kulturetxeraino eta Geltoki kalean segi Okendo plazaraino. Udaletxe berriaren atzean izango dira haurrak urarekin freskatzen Askatasunaren plazako eskulturen jiran.

*Zokoillunbe* ere deitzen omen zitzaion toki hari, nahiz eta izendegi ofizialak santuaren izena jaso. Eta eskerrak! Herrian dagoen emakume izeneko kale bakarra baita. Eta herria apaintzen duten eskulturak? Horiek ere gizonak eginak. Hala ikasi genuen aSunak talde feministak orain bi aste Okendo plazan egindako erakusketan.

Baina, era berean, zenbat zoko ilun dituen herri honek. Horiek ere seinatu zituzten erakusketan. Eta mapa horiek berak dituzte tatuatuta beren gorputzetan gure lagunek. Kartografia imposibleak. Zein emakumek\* ez die lagunei eskatu etxera iristerakoan idazteko, baldin eta Oriara, Atsobakarrera, Zabaletara... bazihoazen? Nork ez du pausoa azkartu Mirentxueneako parkean? Nork ez du erabaki hobe zela Kale Nagusian errepidearen ondotik joatea ibai ertzeko paseotik baino? Nork ez du beste lagun bat itxaron etxera joan arte, elkarrekin itzultzeko?

Hiri antolamendua neutroa dela uste duenak, ez daki —edo ez du onartu nahi— neutroa edo unibertsala berez dela patriarkala, arrazista, kapazitista... Eta, beraz, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra aurrera ateratzeko genero ikuspegia ezinbestekoa dela onartzen ez duenak, muzin egiten dio herritar guztientzat bizigarria den herri bat kudeatzeari. Egia da: aurtengo Plan Orokorren parte hartze prozesuan egin zen hiri antolamendua genero ikuspegitik aztertze mintegi bat. Bost herritarrek hartu genuen parte. Gaur egun 20.000 biztanle bagara, herritarren %0,025ak, eta mintegia egin eta ia urtebetera, ez dakigu zein ondorio izango dituen guk saio horretan esandakoak.

Norberak bere etxetik modu telematikoa egin genuen saioa. Ia urtebete beranduago aSunak taldeak arazoa herriko plazara ateratzeko ausardia izan du. Ez dakigu, ordea, bizigarriagoa den herri bat kudeatzeko modua izango den hamar urtez herriaren urbanismoa norabidetuko duen plan orokorrean.

Oraingoz ziurtatu daitekeen gauza bakarra da aurtan ere berdintasun tekniaririk ez dagoela. Eta halakorik gabe, herriko emakumeon\* gaizki habitate hau izango dela kartografia imposible bat, kale itsu bat, karkaba bat: *Zokoillunbe*.

**Itakun** Kultur Ekartea

# Zozketa!

ÈNAUT ELORRIETAK  
Manuel Lekuona kultur etxean  
eskainiko duen  
KONTZERTU AKUSTIKORAKO bi sarrera  
zozkatuko ditugu izena ematen duzuen  
bazkideen artean.

\* Eman izena maiatzaren 23a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646. 82 44 66 (whatsapp)

**MAITE**

ESTETIKA ARETOA

Udaberrian, presta ezazu  
**azala** udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu  
egokiena aukeratu dugu

ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

# "Aldaketa klimatikoari aurre egiteko" plana

Klima eta Energia Plana gauzaten hasi da Udala: egoeraren diagnostikoa egiten ari dira. Helburu nagusietako bat da 2030. urterako %40 murriztea berotegi-efektua hauspotzen duten gasen emisioa. Herritarren ekarpenak jasoko ditu, parte-hartze prozesu baten bidez

## Txintxarri

"Aldaketa klimatikoari aurre egiteko" asmoz, Lasarte-Oriako Udalak Klima eta Energia Plana garatuko du. Bi enpresa arduratuko dira egitasmoa burutzeaz: Ados Sostenibilidad y Clima donostiarra eta Inergy kataluniarra. 26.249,44 eurokoa izango da aurrekontua. Ingurumen teknikari Itziar Gurrutzagak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak 11.560 euroko dirulaguntza emango dio Udalari, plana burutu dezan.

Agustin Valdivia alkateak eman du proiektuaren helburuen berri. Batetik, berotegi-efektua hauspotzen duten gasen isuriak %40 murriztea 2030erako; bestetik, udalerraren jarduna egokitzea, aldaketa klimatikoan ahalik eta eragin gutxien izan dezan. "Sektore guztietara bideratutako neurriak jasoko ditugu planean, baina udaletxetik hasiko gara", zehaztu du Valdiviak.

Ekintza batzuk zehaztu dituzte: udalerraren energia-gastua moldatzea eta murriztea, herriko argiteria aldatzea -2021-2023 urteetarako inbertsio-planean jasota dago hori- eta udal-ekipamenduetan energia berriztagarria sortzen duten tresnak instalatzea. "Gaur egungo kontsumoa %35 murriztu nahi dugu, eta energia berriztagarriak



Ezker-eskuin: Nagore Duran, Agustin Valdivia eta Itziar Gurrutzaga. TXINTXARRI

sortzeko gaitasuna handitu". Egoeraren diagnostikoa egiten ari dira orain: besteak beste, udal-ekipamenduak kontsumitzen duen energia aztertzen, Gurrutzagak jakinarazi duenez.

## Herritarren parte-hartzea

Gaur egungo egoeraren azterketaz gain, lasarteoriatarren iritzia ere bilduko ditu Udalak, inkesta digital baten bitartez. Maiatzaren 21ean jarri dute martxan parte-hartze prozesua. Galdetegi hori hilabete inguruz egongo da Udalaren web-orrian.

Saio presentzial batzuk ere egingo ditu. Iraganaz, orainaz eta

etorkizunaz hausnartzeko izango da horietako bat; inkestako erantzunak eta egoeraren azterketaren zenbait ondorio eskuetan izan nahi ditu Udalak horrezkerok. Diagnostikoa osatuta dagoenean, beste saio bat egingo dute, helburu honekin: planean txertatzeko hiruzpalau ekintza zehatz garatzea. Hitzorduen datak eta orduak zehazteke daude.

Parte-hartze zinegotzi Nagore Duranek adierazi duenez, Klima eta Energia Planaren gaineko informazio guztia Udalaren web-orrian, sare sozialetan eta tokiko prentsaren bitartez zabalduko dute.

Datu ofizialen arabera, maiatzaren 19ra arte 1.648 herritar kutsatu ditu koronabirusak, biztanleria osoaren %8,6. 22 pertsonak ez dute osatzerik izan; hil egin dira.

Koronabirusaren transmisioaren adierazleak oso kontuan hartzeak izanagatik, Beterri-Buruntza eskualdeko gainontzeko udalerrietako egoera ere hobetzen ari da egunez egun. Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnieta eremu horian daude gaur-gaurkoz; Hernani eta Usurbil, aldiz, laranjan.

## Eremu laranjatik horira igaro da Lasarte-Oria

Datu ofizialen arabera, maiatzaren 19ra arte 1.648 herritar kutsatu ditu koronabirusak, biztanleria osoaren %8,6

## Txintxarri

COVID-19aren intzidentziak apaltzen jarraitzen du. Horren adibide, eremu horira -60 eta 299 arteko intzidentzia-tasa metatua duten herriak daude multzo horretan- igaro dela

Lasarte-Oria; apirilaren 4an egon zen azkeneko egoera horretan. Maiatzaren 19ko intzidentzia-tasa metatua 278,29 izan da -datu horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik-.



Herriko hainbat ostalari, apirilaren egindako elkarretaratze batean. TXINTXARRI

## Ostalaritza Lasarte-Oriak laguntza eskatu dio Udalari

Hiru proposamen egin dituzte tabernariak: besteak beste, zenbait udal-tasa ordaindu behar ez izatea


## Txintxarri

Udal-tasak ordaindu behar ez izatea (ura, zaborra, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga...), zenbait gasturi aurre egin ahal izateko dirulaguntzak jasotzea, eta herriko kontsumoa indartzeko kanpainak sustatzea. Ostalaritza Lasarte-Oriak hori eskatu dio Udalari, sektorea bizitzen ari den egoera ekonomiko estuari aurre egiten laguntzeko. "Oso urte zaila izaten ari da, eta badirudi epe motzean ez dela ezer aldatuko".

Lasarte-Oriako ostalariak gainezka eginda daude, COVID-19ak eragindako egoera tarteko.

"Gure negozioei ezin diegu errentagarritasuna atera, indarrean dauden neurriengatik". Hori dela eta, sektorean lan egiten duten profesionalen diru-sarrerak "nabarmen" urritu dira 2020ko martxotik hona, baina gastuak, aldiz, ez. "Familia ugari ataka estuan daude, eta zenbait tabernek atekak itxi behar izan dituzte".

Ostalaritza Lasarte-Oriak azpimarratu du sektore horrek "lanpostu asko" sortzen dituela herrian, eta horiek mantentzeko "borrokatzen" ari direla, "nahiz eta erakundeek laguntza gutxi ematen duten".



TXINTXARRI

## Udaberria komertzioetan

Hasi da Aterpea elkartearen Udaberriko Festa. Maiatzaren 28ra bitartean herriko establezimenduetan erosketak egiten dituzten herritarrek saria izango dute; 1.500 eurora arte jasoko dituzte erosketa-bonuetan.

Herriko ikastetxeetako haurrek 750 bat marrazki egin, eta ekimenean parte hartu duten 44 establezimendutan jarri dituzte ikusgai.



Ezker-eskuin: Nabarraldeko Angel Rekalde eta Iñaki Lopez de Luzuriaga. TXINTXARRI

# Nafarroako erresumaren inbasioa ezagutarazten

Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek 'Nafarroako erresumaren inbasioa (1199-1200)' liburua aurkeztu du Mercero gunean. Labur eta modu irakurterrazean osatzen ahalegindu da lana. Edukiari buruzko nondik norakoak eman dizkie aretora bertaratu diren herritarrei

## Maitane Aldanondo

1512ko konkista bera eta haren ondorioak ezagunak dira: Nafarroako erresuma bitan zatitu zuten, Nafarroa Garaia konkistatua izan zen eta Nafarroa Beherea independente mantendu zen; 1200. urtekoa, aldiz, "ez da batere ezaguna", nahiz eta haren ondorioz basko eta nafarren

arteko bereizketa gertatu. "Gerra baten ondorio izan zen muga hori", zehaztu du Nabarraldeko Angel Rekaldek. Gertakari horren garrantziaz mintzatu ziren eta testu motz hura garatzeko ardura hartu zuen Lopez de Luzuriagak. Liburuxka elkarteak argitaratu du, gai zehatzak ezagutarazteko duen bildumaren barruan.

Historiografiak jaso izan du Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa independenteak zirela, eta une jakin batean egungo EAE osatzen duten hiruek erabaki zutela Nafarroari lotuta egon ziren bezala Gaztelara lotzea. "Orain arte esan izan da 1199-1200 urteko momentuan paktu bat egon zela", Lopez de Luzuriagak

argitu duenez, ordea, gertatutakoa bestelako da: "Alfontso VIII. Gaztelakoa Pancorbotik abiatu zen eta alde izan zuen Lopitz Harokoa, Bizkaiko Jauna. Honek interes feudalak zituen, Nafarroako erresumak aitortzen ez zizkionak, baina Gaztelak, bai". Araba eta Durangaldearen ondoren, Gipuzkoako lurak hartu zituzten.

## Higaduraren kontaketa

Uneaz gain testuinguru historikoa ere azaltzen du lanak, aurretik baitzeturten Nafarroaren higadura. "Euskal erresuma izatea zen proiektua, baina harrezkero zatitua eta oso murriztua geratu zen alde guztietatik, aurrera egiteko aukerarik gabe". 1076an ere Nafarroa inbaditua izan zen, bertako errege Antso Gartzes Peñalengoa erail ondoren. "Horrela deitu zaio Peñalenen bota zutelako eta berehala Gaztelako indarrak sartu egin ziren".

Halako gertakari historikoen egun garrantzirik ez dutela pentsatzen dutenei kontrakoa erakutsi nahi izan die Rekaldek gertakari bat azalduta. Duela aste gutxi toki horretan bertan errege horren omenez harrizko tronu bat jarri zuten, eta egun berean mailuarekin apurtu zuten. "24 ordu ere ez zituen iraun. Horren kontrako gorrotoa eta grina badaude", zehaztu du Nabarraldeko kideak.

1076tik 1200 bitarteko zenbait gertakari eta faktorek ardatzen dute kontakizuna. Besteak beste,

erlijio borrokak edota erregeen zilegitasunaren jatorria. 1199-1200 urteko inbasioarekin itsasaldea galdu zuen Nafarroako Erresumak. Izan ere, garai horretan merkataritza eta arrantza asko garatzen ari ziren eta nafarrek bazuten indarra, Alexandrian (Egipton) nafar itsasontziak aipatzen dira; Gaztelak burdinolaka eta kostaldeko azpiegiturak bereganatu zituen.

## Analogikotik digitalera

Liburuak "ertz eta faktore asko" dituela azaldu du egileak. Wikipediako artikulutik abiatuta, bestelako materialak gehitu baitizkio, nolabait "analogikotik digitalera zubi lana egiten du". Gainera, QR kodeen bitartez, Wikimedian dauden mapa eta argazkiak ikus ditzake irakurleak. Gainera, nabarmendu du edukia lizentzia askean argitaratu dutela.

Lopez de Luzuriaga filologoa eta Historian aditua da, ogibidez itzultzailea, eta wikilaria. Ez da lasarteoriatarrek gertakari historiko baten inguruan idatzi duen lehen liburua; aurretik, esaterako, *Euskaldunak eta karolingiar iraultza* ikerlana argitaratu baitzuen.

## "EUSKAL ERRESUMA IZATEA ZEN PROIEKTUA, BAINA HARREZKERO ZATITUA GERATU ZEN"

## Zapategi kaleko herritarren egoera, Batzar Nagusietara

Lurralde ordezkariarekin biltzea eta Batzar Nagusiak enpresarekin harremanetan jartzea eskatu dute

### Txintxarri

Babes ofizialeko zenbait etxebizitza daude Lasarte-Oriako Zapategi kalean. Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan dira eraikin horietan bizi diren herritarren zenbait ordezkari eta Kaleratzeak Stop plataforma. Bi gauza eskatu dizkiete: batetik, erraztu dezatela bizilagunen eta etxebizitzaren arloko lurralde ordezkariaren arteko bilera, "gehiegizko alokairuak" ordaindu ezin dituzten familiei "irtenbideak" eskaintzeko; eta bestetik, PBP Gestión de Arrendamientos y Alquileres SL

enpresarekin harremanetan jartzeko, familiek ordaindu beharko dituzten alokairuak tarteko -700 eta 900 euro artekoak, egungoak baino nabarmen altuagoak-, ez dadin egon etxegabetze-eskaerarik.

### Alokairu "neurrigabeak"

Kaleratzeak Stop plataformak salatu duenez, Zapategin bizi diren familiek ezin dituzte merkatu pribatuko alokairuak ordaindu, Gipuzkoan "neurrigabeak" direlako prezioak. "Batez beste, 1.028 eurokoak dira, Bartzelona

edo Madrilgoak baino garestiagoak".

Batzar Nagusietara joan, eta EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU alderdietako kideekin elkartu dira. Bizilagunak ordezkatu ditu, adibidez, Lolik, hilabetero 900 euroko diru-sarrerak dituen pertsonak, eta Edurnek; erretiratu, eta 750 euroko pentsioa kobratzen du hilero. "Enpresak proposatu dituen gehiegizko alokairuak ezingo dituzte ordaindu", azaldu du Kaleratzeak Stop-ek.

"Etxebizitza eskubide bat da, eta ez negozio orokor bat; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak alokairuaren prezioak ez kontrolatzeko asmoa adierazi du", gehitu du plataformak. "Pandemia betean, prezioek gora egiten jarraitzen dute: Zapategi kalekoak %50 eta %100 artean igotzea proposatu du PBPk".



TXINTXARRI

## Tubacexeko langileei elkartasuna

Laudio eta Amurrioko Tubacex lantegiek hiru hilabete daramatzate greban, enpresa burutzen ari diren kaleratzeen aurka protesta egiteko. Lanuzteak egiten ari diren beharginei elkartasuna adierazte aldera, hainbat enpresatan elkartasun-argazkiak egin dituzte: tartean, Michelinen, ELA eta LAB sindikatuek deituta. *Tubacexen kaleratzerik ez!* lelodun afixak erakutsi dituzte agerraldian.

# Aurten ere ez da izango Euskararen X. Maratoirik

Ekitaldiak "merezi duen baldintzetan" ospatu ahal izateko, Lasarte-Oriako euskararen festa handia atzeratzeko erabakia hartu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Udalak. Herritar guztiei gonbita luzatu diete hitzordua iristen denean, bertan parte hartzeko

## Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak Euskararen X. Maratoiko zortzikotea osatuko duten kideekin batera, Euskararen X. Maratoia urtebetez atzeratzea erabaki du, berriz, aurten ere. Jakinarazi dute antolaketa lan batzuk aurreratuta dituztela iaztik, baina Euskararen Maratoia "ondo, bere izaerak eskatzen dituen baldintza guztiekin" ospatu behar dela lehenetsi du Jon Antxordoki Udaleko Euskara Batzordeko lehendakariak.

Mari Karmen Ormazabalek, Ttakun Kultur Elkarteako lehendakariak ere gauza bera

azpimarratu du, Euskararen Maratoia "erdizka" egiten hasiz gero, ez dela Euskararen Maratoia izango, eta behar dituen baldintzak ziurtatzeko urtebete gehiago itxaron behar baldin bada, hala egingo dutela.

Edozein kasutan, herritar guztiei gogorarazi diete euskaldun izan edota izan nahi dugun guztioi irekitako plaza izango dela Euskararen X. Maratoia eta herritar oro dagoela gonbidatuta bertan parte-hartzera, bakoitzak nahi edota ahal duen moduan.

## Iragartzeko, 'Hamar atzamar'

Herriko ekitaldi kuttunaren hamargarren edizioa iragartzeko

*Hamar atzamar* abestia egin zuen zortzikote bihurriak iaz. 2020ko urriaren 17an eta 18an ospatu behar zen Euskararen X. Maratoia, baina, garai hartako pandemiaren egoerak hala behartuta, ezinezkoa izan zen. Dena den, ospakizun handirik gabe, baina etxeetako balkoietan dantza egiteko deia egin zuen zortzikoteak, eta izan ziren bozgorailuak martxan jarri eta dantza eginaz Euskararen Maratoia gogora ekarri zuten herritar bat baino gehiago.

Orain 34 urte ekin zioten udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak Euskararen Maratoia



Ostegun arratsaldean iragarri dute Euskararen X. Maratoiarene atzeratzea. TXINTXARRI

antolatzeari. 1986. urteko 40 ordu *baitez!* izan zen lehenengoa; urriaren 25 eta 26a zen, larunbat eta igandea eta Joxe Mari Agirretzek, Bixente Beltranek, Mailu Arrutik, Jexux Izetak, Agus Mujikak, Anabel Izagirrek, Natxo Izetak eta Jon Iñaki Elexpuruk osatu zuten zortzikotea.

Lasarte-oriatarrek bizitu duten azken maratoia 2016. urtekoa izan da. *Irten armairutik* bederatzigarrena izan zen, eta bertan agertu ziren, lehen aldiz, *Ahobizi* eta *Belarriprest* figurak. Deseatzean izango dira horiek ere, datorren urtean, Okendora agertu eta herritarrek in euskararen jaia ospatzeko.

# Aldarrikapenen kutxa Lasarte-Oriara bidean da

'Kutxa Bira' egitasmoa Lasarte-Oriara izango da datorren ostegunean. Iparra-Hegoa elkarteak abiatutako ekimena da, eta Argentinatik abiatu eta Euskal Herri osoa zeharkatuko duen egurrezko kutxa bat izango da protagonista nagusia

## Txintxarri

*Bizi gira...kutxa bira!* lelopean, Euskal Herri osoa eta diaspora zeharkatzen ari da Euskal Herriko egurrezko kutxa bat. Martxoaren 20an abiatu zen kutxa, Argentinako Viedma hiritik, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko du maiatzaren 30era bitarte. Egun horretan Segurara (Gipuzkoa) iritsiko da kutxa, baina, hara heldu aurretik Lasarte-Oriatik ere igaroko da. Datorren ostegunean, maiatzaren 27an jasoko dute herritarrek egurrezko kaxa.

Kutxa jasotzen duen herri bakoitzak, bideo bat egiteaz gain, aldarrikapen edo amets bat sartu beharko du, eta, horrekin batera,



'Kutxa bira' egitasmoa Gernikan egin duten uneko argazki bat. IPARRA-HEGOA

hurrengo herriari egindako gonbidapen-agurra ere idatzi beharko du. Horrez gain, Euskal Herri osoari zuzendutako manifestu bat ere izango du barnean kutxak, herri guztietan irakurriko dena.

*Kutxa Bira* Iparra-Hegoa elkarteak martxan jarritako egitasmoa da. Elkarte horrek 25 urte daramatza euskal nortasuna, euskararekiko atxikimendua eta herri izatearen kontzientzia pizteko lanetan.

## Lasarte-Oriako egitaraua

Aurrez esan bezala, datorren ostegunean jasoko dute lasarteoriatarrek egurrezko kutxa. Nafarroako Arroniz herritik iritsiko da Lasarte-Oriako Tximistarreta parkera, 20:00etan. Kokaleku hori aukeratu dute, leku "eder bezain lasaia" delako, eta, eguraldiak lagunduko ez balu, Oriarte Institutuko estalkian egingo dutela iragarri dute.

COVID-19ak eragindako osasun egoera dela-eta, antolatzaileek ez dute deialdi publikorik egin, baina, bertan parte hartu nahi duen eragile edo herritarrik bada, honako telefono zenbakira deitu behar dute: 616 43 21 69. Dena

den, jakinarazi dute 50 pertsona bildu ahal izango direla gehienez, "segurtasuna bermatzeko".

Dagoeneko baieztatu dute hainbat eragileren parte-hartzea. Aurreratu duten informazioaren arabera, Zabaleta auzoko txalapartariak ongi etorria emango diote Arroniztik etorriko den Errigorako ordezkariari. Horren ostean, Erketz Dantza Taldeak *Agurra* dantzatuko du, eta, jarraian, Amets Arzallusek Euskal Herri osoarentzat egin duen idatzia irakurriko dute. Hori amaituta, Lasarte-Oriako Gazte Sortzaileek abestu egingo dute, eta Earra! bertso-eskolako kideen eskutik bertso saioa izango da.

Literatur Txokoko lagun txanda izango da gero. Lasarte-Oriako mezua irakurri eta egurrezko kutxan sartuko dute, eta hori eta gero, Kukukako dantzariak dantza emanaldia izango da. Amaitzeko, Belarmeta mendizale taldeak hartuko kutxa; eurak arduratuko dira hurrengo egunean, maiatzaren 28an, Hernaniko ordezkariak eramatera joateaz, oinez. Ekitaldia ixteko, adarra joko dute eta talde-argazkia aterako dute.



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkezten.

# Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

## Tresna nagusia, lana

Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkezuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaur-laritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat egin. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta

epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatuhonen bitartez, erakunde, gara-

pen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan

dauden pertsonen gain, prestakuntza baxua dutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

## Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdia onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioi zuzkidura izan baitzuten.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik, lanean diharduten erakundeen eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernanta eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da strategiaren zabal-kundea gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahaia osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berriren sorrera sustatuko da, dagoeneko abian

dauden jarduera sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaur-laritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berriren sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpaktu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagun formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

## BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

## HIRU URTEAN 36,6 MILIOI EURO BIDERATZEA AURREIKUSI DU GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK

### Elkar Ekinen onuradunak

#### CAROLINA KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalekkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatzen nuen; pozarren".

#### JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroatzen hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPAr, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

#### JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoia eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

#### VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".



Olatz Arocena eta Txarli Martinez zazpi eta zortzi urteko neskatila banaren harrera-familia dira. Duela sei urtetatik bizi dira elkarrekin. OLATZ AROZENA

# Sei urte elkarren berotasunean

## OLATZ AROZENA ETA TXARLI MARTINEZ HARRERA FAMILIA

Bi neskatilen harrera-familia osatzen dute Olatz Arozenak eta Txarli Martinezek. Sei urte daramatzate elkarrekin bizitzen eta bizipen horien berri eman diote TXINTXARRI aldizkariari

### Maddi Zaldua

Guraso izateko "beste modu bat" bezala bizi dute Olatz Arocena (Lasarte-Oria, 1970) eta Txarli Martinezek (Bilbo, 1962) harrera-familia. Zazpi eta zortzi urteko neskatila banaren harrera-familia osatzen dute, duela sei urtetatik. Prozesua abitu zuten lehen unetik argi zuten haurrak harreran hartzearen erabakiak bazuela "konpromiso izaera handi bat", eta, horrela, harrerako haurrek harrera familiak edukitzeko "beharrak jabetuta", hari horretatik tiraka hasi ziren lehen pausuak ematen.

"Epe luzerako erronka eta konpromisoa" hartuz murgildu ziren lehen, eta, gaur-gaurkoz, bizitzea egokitu zaien esperientzia bakarrean. Eta, azaldu dutenez, "esperientzia polita" izaten ari da: "Asko eskatzen dute, baina eman ere asko ematen dute. Ederra da nola hazten ari diren

ikustea, eta beraien erreferentzia nagusiak bilakatu gairela ikustea".

Kontatu dute hasieratik izan dutela "erronka bikoitza", harreran dituzten haurrak familia ezberdinetan egon zirelako batetik, eta, Olatzekin eta Txarlirekin lotura finkatu eta garatu behar zutelako bestetik. Eta, finkatutako erronka horiekin aurrera egiten ari dira orain: "Oso ume irekiak dira, biziak eta alaiak eta oso ondo integratu dira gure inguruan: familian, lagunartean, ikastolan eta kalean".

### Aldundiko Gizarte Zerbitzuak

Olatzek azaldu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen du haurrak harreran hartzeko prozesua: "Aldundiko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da; bertako profesionalak dira prozesu guztia gidatzen dutenak". Gaineratu du, profesional horien

bidez, hainbat ebaluazio egiten dizkietela harrera-familia izan nahi dutenei, "egokitasun-maila" baloratzeko. Zenbait formazio saio ere egiten direla kontatu dute: "oso interesgarriak".

Beroa elkarrearen berri ere eman du: "Gipuzkoako harrera familien elkarte da, eta hala behar izanez gero, aholkuak emateaz gain, haurrak harreran hartzeko prozesua hobeto ulertzen eta eramaten ere laguntzen dute".

Argitu ditu baita ere haurrak harreran hartzeko dauden aukerak. Urgentziatzeko harrera da horietako bat. Haurrak egun

**"HAURRAK ZORIONTSU HAZTEN ARI DIRELA IKUSITA, PROZESU HONEK MEREZI IZAN DUELA USTE DUGU"**

batetik bestera hartu behar izaten dira, eta, gehienez, sei hilabeteko egonaldia egiten dute harrera-familiarekin. Aldi baterako harrera ere badago. Kasu horretan, bi urtera arteko egonaldiak egiten dituzte haurrek, harrera-familiatan. Hirugarren aukera, harrera iraunkorrena da; "epe luzekoa". Harrera mota horrek "iraupen mugagabea du". Azken motako harrera prozesuan daude Olatz, Txarli eta euren bi harrera-alabak.

Kontatu dute harrera-iraunkorreko familian dauden haurrak, adin nagusitasunera heltzen direnean euren kabuz erabaki dezaketela zein bide jarraitu, hau da, harrera-familiarekin bizitzen segi, jatorrizko familia itzuli, edo aldundiaren babesarekin euren bidea jarraitzea.

### Harremanak, familia biologikoarekin

Olatzek eta Txarlik kontatu digute euren harrera-alabek badutela harremana euren familia biologikoarekin: "Harrera-familia kasu bakoitzarentzat, bisita-erregimen ezberdina zehazten da; gure kasuan, hamabost egunean behin egoten dira euren jatorrizko familiarekin; bi orduz".

Haurren garapenerako euren familia biologikoen presentzia "garrantzitsua" dela iritzi dute: "Eurek ere, zaindu ezin dituzten



**Harrera**  
Eguna b  
sorta ba  
Lasarte-  
batetik A  
Rodrigue

arren, maite dituztela sentitzea oso garrantzitsua da. Bisita horien bitartez, familia biologikoekin kontaktua mantentzea bermatzen da; familia gertu sentitzeak, abandonatua izatearen sentimenduak usatzen laguntzen du".

Kontatu dute euren haurrek "pozik" hartzen dituztela bisita egunak: "Gure kasuan, familia ere asko saiatzen dira haurrekin daudeneko momentua atsegin egiten. Gustuko meriendak, opariak, eta abar ematen dizkiete. Hasieran mugituago etortzen ziren bisitetatik, baina, orain, lasaiago etortzen direla sumatzen dugu".

### Gizartean, "ezezagutza"

Harrera-familien gaiarekiko, orokorrean, "ezezagutza handia" dagoela uste dute Olatzek eta Txarlik. Gauzak horrela, egokitu zaie "ezjakintasunetik" egindako zenbait adierazpenen lekuko izatea ere, eta horien adibide bat jarri dute: "Hasieran, gurasoei haurrak horrela nolatan kendu zizkieten galdetuz hurbiltzen zitzaigun jendea". "Eskuzabaltsun handia" erakusten ari direla adierazten dietenak ere badituzte inguruan, eta baita ere "Haurrak familia-biologikora bueltatzen direnean zer?", galdetzen dietenak, nahiz eta aitortu duten normalean ez dutela "asmo txarrik" sumatu galdera horietan.

Azken galdera horren gainean, ordea, ez dute gehiegi pentsatzen: "Urte hauetan guztietan egunero egiten duguna euren barruan geratuko dela espero dugu; eraiki dugun lotura betiko izango dela. Haurrak gurekin zoriontsu hazten ari direla ikusten dugunez, guretzat prozesu honek merezi izan duela eta bere fruituak eman dituela uste dugu".

Irakurri erreportaje osoa  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian



## SERIEA

**Harrera-familiak.** Maiatzaren 15eko Familiaren Nazioarteko una baliatuta, familia eredu ezberdinen gaineko erreportaje arta bat argitaratzen ari da TXINTXARRI. Aste honetan, Lasarte-Oriako bi harrera-familiaren bizipenak bildu ditugu. Alde batetik Arozena-Martinez familiarena, eta, bestetik, Mertxe Rodriguez eta bikotekidearena.



Mertxe Rodriguez bi aldiz izan da hiru haurren harrera-familia. TXINTXARRI

# Beroa ematea, jatorrira itzultzeko

## MERTXE RODRIGUEZ HARRERA-FAMILIA

Bi aldiz izan dira hiru haurren harrera-familia Mertxe Rodriguez eta bere bikotekidea. "Ezohiko" kasuak bizitzea egokitu zaiela kontatu dio Rodriguezek TXINTXARRI-ri

### Maddi Zaldúa

Gaur hamabost urte ezagutu zuen lehen aldiz Mertxe Rodriguezek (Lasarte-Oria, 1968) Beroa elkarte. Pirritx eta Porrotx pailazoan lagun Marimotots hezurmamitzen du Rodriguezek, eta hain zuzen ere, pailazo gisa lanean ari zela eduki zuen Beroa Gipuzkoako Harrera Familien Elkarte ezagutzeko aukera. Eta, orduantxe sortu zitzaion haur bat harreran hartzeko harra barruan: "Pailazoekin familia ereduaren gaineko bilduma bat lantzen ari ginen orduan, eta proiektu haren parte zen Beroa elkarte".

"Aspaldi" hartu zuen Rodriguezek ama-biologikoa ez izateko erabakia, baina, aitortu du buruan beti izan duela bueltaka haurrak harreran edo adopzioan hartzearen ideia. Buruko ideia eta asmoak gehiegi pentsatzen direnean, ordea, batzuetan ez da horiekiko erabakia hartzeko une egokiak topatzen sekula, eta hori da, modu batean Mertxeri eta bikotekideari gertatu zitzaiona, behin betiko erabaki hartu zuten arte: "Gauzak asko pentsatzen dituzunean, inoiz ez duzu horiek aurrera eramateko momentu egokirik ikusten. Gure kasuan, lana zela, edo beste edozein aitzakia zela, ez genuen haur bat harreran edo adopzioan

hartzeko une egokirik ikusi denbora askoz".

Erabakia hartzeko "denbora luzea" behar izan zuten arren, duela bospasei urte hartu zuten erabakia: "Gaiari muinetik heldu eta esan genion gure buruari, zergatik ez? Eta galdera horri ezezko borobil bat emateko erantzunik ez genuela ikusirik, aurrera egitea erabaki genuen". Orduantxe erabaki zuten haur bat harreran hartzeko prozesua martxan jarri eta bide berri hari ekitea.

Gogoan du Rodriguezek harrera-familiak kudeatzen dituzten Gipuzkoako Foru Aldundiko profesionalekin egindako informazio-bilera batekin hasi zela guztia. Bertan haur bat harreran hartzeko prozesuaren nondik norakoak azaldu zizkietela eta han jasotakoarekin aurrera egitea erabaki ostean, prozesuarekin aurrera jarraitzeko izapideak edo beharrezko paperak bete behar izan zituztela.

Azterketa psikotekniko bat ere egin behar izan zuten, eta, horren ostean, baita etorkizunean, harrerako haur baten guraso zirenerako, zenbait kasu teoriko-praktikoren formazio saioa ere.

### Lehen "erradiografia"

Prozesu horretan bildutako informazioarekin, harrera-haur

eta familien arteko harremanak kudeatzen dituzten ordezkariek lehen "erradiografia" bat egiten dute: "Jasotzen dute harrera-familion informazioa eta horren arabera, familia horietara egokitu daitekeen kasuak bilatzen dituzte".

Puntu horretara iritsita, Rodriguez eta bikotekidearen lehen kasuan, hilabeteko haur bat harreran hartzeko deia jaso zuten. Hasieran *sustoa* hartu zutela aitortu du, ez baitzuten jaioberri bat harreran hartzeko ideia buruan, baina, hasierako "beldur eta kezkei" aurre egin eta baiezkoa eman zuten: "Bost urtetik zazpi urte bitarteko haur baten harrera-familia izateko ideia egin genuen, eta, bat-batean, hilabete batekoarekin etorri ginen etxera; oso pozik, oso polita izan da".

Etxean bi izatetik hiru izatera pasa, eta egokitzapen prozesuari martxa hartzen ari zirela, zortzi hilabetera, haurra familia-biologikoarekin itzuliko zela jakinarazi zieten, ordea. Denboran, harrera prozesu hark ez zuen bikoteak aurreikusi zuena bezainbeste iraun, baina bizitako hilabeteak "oso intentsoak" izan zirela azpimarratu du: "Guretzat berria zen haur bat etxean hartzearen esperientzia, egun batetik bestera gainera.

Lehenengo esperientzia hark bultzatuta, bigarrenoz beste haur bat hartzerara animatu ziren, eta sei hilabete itxaron ostean, bi anai-arreba hartu zituzten etxean. Haur horietako batek zortzi hilabete zituen orduan, eta, besteak, aldiz, bi urte eta erdi. Aurreko esperientziaren antzera, ordea, uste baino lehenago itzuli ziren haurrak familia biologikoarekin; urte eta erdi harrera familian egon eta gero.

### Esperientzia "ezohikoak"

Euren bi esperientzien berri eman ostean, kontatu du Rodriguezek eurenak bezalako kasuak ez direla "ohikoak". Urgentziazkoak ez diren kasuetan, iraunkorrak izaten baitira egonaldiak. "Gureak, hasiera batean epe luzerakoak baziren ere, denbora labur batean itzuli ziren, haurrak, euren familia-biologikoetara".

Bizitako bi esperientziak bere bizitzako "abentura potenteenak" izan direla azaldu du Rodriguezek, hala neurtzen baitu berak bizitza; abenturatan. Eta gaineratu du, "hamarrekoak" izan direla biak ala biak: "Guk gure helburua beti izan dugu oso garbi. Gure nahia izan da haur horiei, egunen batean, posible bazen euren familia-biologikoekin bueltatzen laguntzea. Izugarritzko ahalegina eta saiakera egin dugu, berriz ere unitate-familiarra izatera bueltatu zitezten. Bizitza hau oso luzea da, eta bidean zulo asko daude. Nork esaten digu, zulo horietako batean eroriko

ez garenik inoiz? Guk horrela ulertzen ditugu familia horiek; momentu batean zuloa erori dira eta, gizarteak lagundu egin behar die hortik ateratzen. Harrera-familia da hortik ateratzen laguntzeko baliabide bat".

Helburua hain zuten garbi, ezen harrera epeak amaituta, haurrak euren familia-biologikoetara bueltatzeak zoriontsu ere sentiarazi dituela: "Bihotza badugu, eta noski, pena ematen duela. Gureak balira bezala zaindu eta maite ditugu, baina helburua bete dugu, eta horrek oso pozik sentiarazten gaitu aldi berean". Gaur-gaurkoz harreman "oso polita" mantentzen dute hiru haurrekin eta euren bi familiekin, eta etorkizuneko atek itxi ez dituzten arren, harrera-familiaren ibilbideari, momentuz behintzat, amaiera eman diotela jakinarazi du.

Eta eskerrak emanez amaitu du elkarrizketa. Eskertu ditu bizi-esperientzia horietan ondoan izan dituen lankide, senide, lagun eta irakasleak, besteak beste. Azpimarratu du, haur bat harreran hartzeko prozesua abiatu zutela, jakinik prozesu hura ez zela euren lana soilik: "Prozesu honetan beharrezkoa izan da konpromiso kolektiboa; komunitate lan bat da eta horrela bizi izan ditugu guk. Bakarrik ezin izango genukeen, hortaz, mila esker bidelagun guztiei".



Lizaso eta Altuna, aurrean gorritz, Master Cupeko txapela eta domina jantzita. GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA

## Altuna-Lizaso bikotea, Master Cupeko garaile

Maunier-Cabanneri bikote lapurtarra garaitu dute Getarian jokaturako finalean. Horrez gain, Beñat Lizaso Gipuzkoako buruz buruko txapela jantzi du Lasarte-Oriako Loidi-Barren pilotalekuan jokatu den euskal pilota egokituko jardunaldian

### Txintxarri

Igandean, maiatzaren 16an, Ostadar Inklusioa taldeko Ander Altunak Master Cup txapelketako finala jokatu zuen, Getarian. Beñat Lizaso oiarztuarra izan zuen bikotekide eta txapela jantzi zuten.

Meunier eta Cabanneri bikote lapurtarra izan zuten arerio, eta 25-15 gailendu zen Altuna-Lizaso bikotea.

Beñat Lizaso sekulako erakustaldia eman zuen neurketan eta bere jardunak erabaki zuen partida. Ezker-eskuin, bikain astindu zuen

pilota, eta, gaur-gaurkoz, kokka bat gorago dagoela erakutsi zuen.

### Lizaso, Gipuzkoako txapeldun

Bezperan, XI. Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko Txapelketako jardunaldia jokatu zen Loidi-Barren pilotalekuan. Gurpildun aulkiko modalitateko bikotekako azken partidak jokatu zituzten, baita buruz buruko azken sailkapena jokoan zuten partidak ere. Ostadar Inklusioa taldeko Ander Altunak ezin izan zuen parte hartu, baina Master Cupeko bere bikotekide Lizaso buruz buruko txapela jantzi zuen.

Bikotekako txapelketarekin ekin zioten. Bi partida jokatu ziren. Lehenengoan, Manuel Quesada eta Asier Navaridasek Hilario Olano eta Mikel Merino garaitu zituzten, 4-1. Bigarrenean, berriz, Quesada eta Navaridasek Olano eta Beñat Lizaso izan zituzten aurrez aurre. Bi bikoteek erakutsi zuten irabazteko nahia eta azken emaitzan isla du lehia estuak. Olano eta Lizaso izan ziren irabazleak, 9-10.

Hori horrela, ekainaren 26an Zumaiako pilotalekuan jokaturako finalerako txartela lortu duten bikoteak Hilario Olano-



Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko Txapelketako partida eta sari banaketa. TXINTXARRI

Mikel Merino eta Manuel Quesada-Beñat Lizaso dira. Ostadar Inklusioa taldeko Altuna hirugarren postuan geratu da eta ezin izan du finalera sailkatu.

Bestalde, buruz buruko txapelketako lehen postuak ere izan ziren jokoan.

3. eta 4. postuak Aingeru Senperena eta Asier Navaridas pilotarien artean banatu ziren. Navaridas gailendu zitzaion Senperenari, 2-10. Txapeldun izateko indarrak neurtu zituztenak, berriz, Beñat Lizaso eta Mikel Merino izan ziren.

Lehen izan zen txapeldun, 10-6 emaitzarekin.

Oso partida gogorrek eta tanto luzeak izan ziren, buruz buru gurpildun aulkian jokatzeko dakarren nekeari eta esfortzuari aurre eginez.

Amaieran, sari banaketa egin zen. Bertan izan ziren Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko lehendakari Itziar Lete, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko lehendakari Blanca Aranguren eta Txus Alonso Udaleko kirol zinegotzia. Axier Arteaga pilotaria ere izan zen partidak ikusten.

## Arteaga II.ak akatsak aztertzeke garaia dela dio

Buruz buruko txapelketako final-zortzirenetan, Jose Javier Zabaletak 22-2 irabazi dio herritarrari

### Txintxarri

"Ni baino azkoz gehiago izan zen. Berak oso partida ona egin zuen. Eta horrelako emaitzak ematen direnean. Hori gertatzen da, batek egun oso ona duela eta besteak ez duela asmatu ere

egin". Horrela azaldu du Axier Arteaga, Arteaga II.ak buruz buruko txapelketako final zortzirenean gertatu zena.

Arteaga II.ak Jose Javier Zabaleta izan zuen aurrez aurre txapelketa nagusiko lehen

partidan. Herritarrak neurketa zaila aurreikusten zuen arren, ez zuen gertatutakoa espero.

Zabaleta sasoi onean dago. Elezkanorekin batera Binakako txapelketa irabazi berri du eta final zortzirenean ederki erakutsi zuen: 22-2 gailendu, eta lasarteoriatarra txapelketatik kanpo utzi zuen.

"Saketik min handia egin zidan. Agian boteari aurrerago erantzun izan banio bestelakoa izango zen emaitza", adierazi du Arteaga II.ak. Gainera, arerioaren



Arteaga II.a, jokatzen. BAIKO PILOTA

pilotakaden abiadura ere nabarmendu zuen. "Berak abiadura handia ematen dio pilotari eta ez dut jakin nola jokatu".

Orain autokritika garaia dela onartu du Arteaga II.ak. "Aurtengo txapelketan ez dut eman lehen mailako txapelketa batek eskatzen duena. Egoera aztertu, akatsa zein izan den ikusi eta entrenatzen jarraitu behar dut, aukera berriak sortzeko. Helburua orain hori da, akatsetatik ikasi eta lanean jarraitzea".

# Zudairek lan bikaina, Europako Txapelketan

Buruntzaldea IKTko igerilariak zilarrezko eta brontzezko dominak jantzi ditu Madeiran ospatzen ari den Europako Txapelketan. Dominez gain, Espainiako lau errekor ere ondu ditu. Maiatzaren 21ean azken proba lehiatuko du: 200 metro, lau estilotan

## Txintxarri

Txapelketa garrantzitsuan ari da lehian Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilari gaztea: Europako Txapelketan. Nazioarteko lehiaketan ostiralean du azken hitzordua Buruntzaldea IKTko kideak, maiatzaren 21ean, baina dagoeneko lan ederra egin du. Bi domina eta hiru Espainiako errekor lortu ditu.

Ongi hasi zuen lehiaketa maiatzaren 16an. 400 m. libreteko proban, zilarrezko domina eskuratu zuen 2004an jaiotako igerilariak, 5:06,16 denbora eginez. Podiumaz gain, proba horretako Espainiako errekor berria ezarri zuen, berriro ere, Buruntzaldea IKTko igerilariak eta 200 metroko pasean ere errekorra ondu zuen, 2:27,85.

Asteartean, 100 m. tximeletan S9 mailako igerilariarekin lehiatu zen igerilari gaztea, berak baino desgaitasun gutxiago duten pertsonekin. Beraz, ez zuen erraza domina eskuratzeko. Hala ere,



Nahia Zudaire, Europako txapelketako podiumean. PARALIMPICOS TV

Sailkapen proban 1:19:97 denbora egin eta bere esku zegoen Espainiako errekorra berriro izan zen gaztea eta ez zuen goizeko marka hobetzerik izan.

100 m. libretean lehiatu zen, asteazkenean. S8 mailako igerilariak finala jokatu zuten.

Lehen luzean dominarik lortuko ez zuela zirudien arren, bigarren tarte gutxi, eta ehuneko gutxi batzuegatik ez zuen berriro zilarrezko domina jantzi.

Hirugarren postua eta marka pertsonala lortu zituen: 1:09,31. Marka hori, gainera, Espainiako errekor berria ere bada.

Maiatzaren 21ean, txapelketari amaiera emateko, Zudairek 200 m. lau estilo proba lehiatuko du.

## Denboraldi hasiera ona

Neguko denboraldia amaitu eta Aste Santuko etenaldiaren ostean, Buruntzaldea IKTko igerilariak berriro ere uretan lehiatu ziren. Igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutu mailako kirolariak kontrol lehiaketa izan zuten maiatzaren 8an, Tolosan.

Proba horrek udako denboraldiari hasiera eman zion eta berrikuntza bat izan zuen, 2007. urteko nesken parte-hartzea. Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko arduradunak azaldu duenez, "2007. urteko Miren Sarobek eta Nahia Goenagak etxeko entrenamendu batean Euskal Herriko gutxienekoak egin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak federatu lizentzia izapidetzeko baimena eman die". Horri esker, biak Tolosako jardunaldian lehiatu ziren. Apeztegiak nabarmendu duenez, taldeko igerilari gehiagok baimena eskuratzeko espero dute, "denboraldi honetan lehiatzea lortu dezaten".

Kontrol proba honetan hamasei marka ondu zituzten igerilariak. Marka hobekuntza ugaria izan ez bazen ere, Buruntzaldea IKTko igerilariak lan ona egin zutela azpimarratu du Apeztegiak. "Gehienak euren marka onenetatik oso gertu aritu zirela esan behar dugu, atsedendaldi

baten ondoren ziklo berri bat hasi izanarekin bat datorrena".

## Lehiaketa ugari

Asteburu honetan, Buruntzaldea IKTko kideek hainbat hitzordu dituzte. Maiatzaren 22an eta 23an, Trofeo Internacional de Natación Villa de Gijón txapelketa antolatuta eta bertan izango dira Aintzane Sarobe eta Nora Imaz gazteak Gipuzkoako selekzioarekin lehiatzen.

Borja Apeztegia taldeko prestatzaileak azaldu duenez, txapelketa hori Igeriketako Europako Ligan eta Espainiako Igeriketa Federazioaren Grand Prix zirkuitoarekin barnean dago.

Sarobek lau probatan parte hartuko du: 50 metroko tximeleta proba eta estilo libreko 50 metrokoa; eta 100 m. eta 200 m. probetan. Imazek, aldiz, bi proba lehiatuko ditu: 100 m. eta 400 m. libre probak.

Era berean, maiatzaren 22an, Eneko Elizasu, Unai G. Somovilla eta Garazi Etxeberria Gasteizen izango dira selekzio arteko Euskadiko Txapelketan parte hartzen. Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko dira eta Bizkaiko zein Arabako taldeen aurka ariko dira puntu gehien lortzeko asmotan.

Hiru proba egingo ditu Somovillak: 50 m., 100 m. eta 200 m. bular proba. Elizasuk eta Etxeberriak, berriz, bina: Elizasuk, 1500 m. eta 400 m. libre probak; Etxeberriak, 50 m. eta 100 m. libre probak.

## Ostadar SKTko I. Erregionala, helburua lortu ezinik

Talde urdin-beltzak ezin izan DU Amara Berri taldea garaitu, eta txapeldunen fasetik kanpo geratu da

## Txintxarri

Partida zaila zuen Ostadar SKTko I. Erregional taldeak. Sailkapeneko buru Amara Berri zuen aurrez aurre, eta txapeldunen faserako sailkapena ere jokoan zen. Tamalez, ez zuen helburua lortu; 1-3 gailendu zen arerioa.

Partida ongi hasi zuen Jon Lopezek zuzentzen duen taldeak. Hegaletatik eta, batez ere, kornetretatik, lauzpabost gol aukera eduki zituen taldeak baina ez zuen asmatu. Lehen zatiko azken momentuan aurreratu zen talde donostiarra.

"Oso ondo sartu ginen partidaren ostean denboraldiko lehenengo zati onenetarikoa egin genuen. Golak psikologikoki mina egin zigun eta ez genuen bigarren zatia hain ondo hasi", aipatu du taldeko prestatzaileak.

Talde urdin-beltzeko atezainak penalti bat gelditu arren, gutxira bigarren gola jaso zuen I. erregionalak, kornetrez. Hirugarrena ere sartu zuen Amara Berri. Bukaerara arte saiatu zen etxeko talde partidari buelta ematen, baina gol bakarra sartu zuen, 87. minutuan.

Era honetara, talde urdin-beltza txapeldun faseko ateetan geratu da. Azken asteetan lehen postuetan egoteko borrokan egon da. "Lehenengo zazpi partidetatik sei irabazi genituen, eta, beraz, goiko postuetan geunden. Egia da aurkari indartsuen kontra jolastea falta zitzaigula, baina garaipen bakarra behar genuen", onartu du Lopezek.

Aurreko astean Luberriren kontra irabazten hasi arren, partida galdu zuen Ostadar SKT, eta aste honetan ere ez du helburua lortu. Amara Berriren eta Vasconiaren garaipenek laugarren postua eraman dute.

"Pena da. Batez ere, hasieran egindako lanari amaiera ez diogulako eman. Baina orokorrean harro gaude taldeak egindako lanarekin", nabarmendu du I. Erregionaleko prestatzaileak.

Erregionalez gain, kadete mailako taldeek ere lehen faseko



Ostadar SKTko I. Erregionalak ezin izan zuen liderra garaitu. TXINTXARRI

azken jardunaldia zuten eta emaitza ezberdinak lortu zituzten.

Ostadar SKTko A taldeak garaipeneko puntuak eskuratu zituen Astigarragako Mundarro taldearen aurka, 0-4.

B taldearen partidaren ostean ere emaitza bera izan zen, baina

irabazlea arerioa izan zen, Real Sociedad.

Texas Lasartearra taldeko gaztetxoek ere ez zuten zortzerik izan eta Danena Bren aurka galdu zuten, 0-2.

Hiru talde horiek ere txapeldunen fasetik kanpo geratu dira.

# Akatsez betetako partida izan arren, puntuak etxean

Ostadar Saskibaloia ataleko I. seniorrak Mondragon Unibertsitatea-Oaintxe taldea garaitu du, Maialen Chourraut kiroldegian. Bigarren eta hirugarren laurdenean arerioak nagusi izan arren, azken minutuetan partida irauli du talde urdin-beltzak

## Txintxarri

Azken partida galdu ondoren, garaipenaren bidera itzuli nahi zuen maiatzaren 15ean Ostadar Saskibaloia taldeko I. Seniorrak, eta Arrasateko Mondragon Unibertsitatea-Oaintxe taldearen aurka lortu zuen, 61-46.

Talde urdin-beltzak ongi hasi zuen partida. Defentsa indibidualak eta zonaka defentsa tartekatu zuen eta area barruan jokoa asko kargatu zuten. Arerioak ez zuen espero eta 11-6ko markagailua lortu zuen Ostadarrek lehen 5 minutuetan. Bi taldeetan errotazioak egin zituzten; tinko eutsi zion Ander Otaegiren taldeak eta lehen laurdena eskuratu zuen, 22-16.

Bigarren laurdena, ordea, bestelakoa izan zen. Arerioak erritmo handia ezarri zion jokoari. Ostadarri erritmoa jaitea komeni zitzaion, baina ez zuen lortu eta Mondragonen tranpan erori zen. "Ikaragarria izan zen laurdena: akats bat bestearen atzetik. Eskerrak amaieran bi kanasta jarraian lortuta aurretik heldu ginen atsedenaldira, 30-25", azaldu du taldeko prestatzaile Otaegik.

Nahiz eta atsedenaldian hitz egin, Ostadarrek ezin izan zuen hirugarren laurdenean arerioaren jokoa zapuztu. "Gu ez geunden gustura eta kanpokoak garaipenean sinesten hasi ziren. Erasoan ez genuen jakin haien 1-2-2 eta 3-2 zonakako defentsen kontra jokatzeko, baloia galtzen jarraitzen genuen eta ezin gure abantailak bilatu. Defentsan, sekulako hutsegiteak, eta haien jaurtitzaila onenari, 24 zenbakiari, bakarrik jaurtitzen uzten genion", nabarmendu du prestatzaileak. Laurden amaieran atzetik zen etxeko taldea, 38-40.

Azken laurdena ere ez zen ongi hasi. Arerioak hirukoa sartu zuen. Baina urdin-beltzek erasoan nola jokatu ikasi, eta kanasta azpian jaurtiketa errazak sartzen hasi zen. Kanpoko bi jaurtiketa jarraian



Laugarren laurdenari esker, lortu zuen Ostadarreko seniorrak garaipena. TXINTXARRI

sartzea lortu zuen, hiruko bat ere bai, eta zortzi puntuko aldea lortu zuen etxeko taldeak, 54-46, lau minuturen faltan.

Gainera, arrasatearrek jokalaria bat galdu zuten hirugarren laurdenean, faltengatik, eta sei jokalaria bakarrik zirenez, ezin izan zuten erritmoa mantendu. Azken bost minutuetan ez zuten saskiratzerik lortu, defentsetara berandu iritsi ziren eta amaieran aldea handitzea lortu zuen Ostadarrek.

Arerio egokia ez zela nabarmendu du Otaegik: "Partida ez da ona izan. Bagenekien Arrasateko taldea ez zela guretzako egokia, haien ezaugarriak kontuan hartuta".

"Askok kosta zaigu partidak eskatzen zuena ulertzea. Eskerrak, azken minutuetan erreakzioa etorri den eta kanpoko taldea indarrak gabe gelditu den", onartu du.

## I. SENIOR TALDEA SAILKAPEN-BURUA DA ETA LEHEN FASEA AMAITZEKO PARTIDA BAKARRA FALTA DU

Senior mailako taldeei bi jardunaldi geratzen zaizkie lehen fasea amaitzeko eta sailkapeneko buruan dago Ostadar. Asteburu honetan, aldiz, ez dago lehiaketarik. Beraz, maiatzaren 29-30 asteburuan ekingo diote azken txanpari. Talde urdin-beltzak, ordea, asteburu horretako partida bakarrik jokatu du. Azken jardunaldian, atsedena izango baitu.

Azken partida hori, gainera, garrantzitsua izango da: "Ordu berean, begietako bat Luberriz-Zarautz partidaren izango dugu. Emaitzaren arabera, finalerako txartela lortu baitezakegu. Gure partida irabazi eta itxaron, ez dago besterik", onartu du talde urdin-beltzeko arduradunak.

## Bigarren fasea ongi hasi

III. mailako taldeak ere ZAST Zarautz ZKE garaitu zuen bigarren faseko lehen partidaren, 55-60.

Fase horretan, Zarauzko taldeak gain, Erroibide Irun eta CD Internacional dituzte arerio. Larunbatean, azken horren aurka jokatu du, Mons kiroldegian.

Junior errendimendu taldeak, berriz, ez zuen hainbesteko zorterik izan, eta 54-63 galdu zuen Goierri UZ Baleikeraren aurka.

## LOKEko gimnastek txapelketara itzulera ederra egin dute

Lasarte-Oriako taldeko kideak senior eta jubenil mailako podiumetara igo ziren Amateur txapelketan

## Txintxarri

Urte bete baino gehiago lehiatu gabe egon ostean, LOKEko gimnastak ederki itzuli dira tapizera. Senior eta Jubenil mailako lau gimnastek lehen postuetan egotea lortu zuten, maiatzaren 16an, Tolosan jokatu zen Amateur lehiaketan. LOKEko bi kadete talde ere lehiatu ziren baina ez zuten hainbesteko zorterik izan.

Urte zaila izan da LOKEko gimnasta taldearentzat baina indartsu ekin diote lehiaketari eta emaitza paregabeak lortu dituzte bakarkako lanetan.

Lehen postuan sailkatu ziren senior A mailako Garazi Gomez eta jubenil A mailako Maitane Arroyo. Gomezek pilota eta zinta lanak egin zituen; Arroyok, berriz, pilota eta borra lanak.

Podiumeko bigarren mailan izan zen Paula Martinez senior B mailan bere pilota eta zinta lanei esker.

Eta Ambar Rodriguezek pilota eta borra tresnekin lehiatu zen eta brontzeko postua eskuratu zuen jubenil B mailan.

Horiez gain, borren lanarekin Aitana Molanok seigarren postuan amaitu zuen kadete B mailako lehiaketa.

Mirian Prieto jubenilak ere parte hartzea espero zuen LOKE gimnastika taldeak, baina ezin izan zuen min hartuta zegoelako.

Taldeka ere lehiatu zen Lasarte-Oriako taldea eta kadete mailan bi ordezkari izan zituen. B1 taldeak zortzigarren postuan eta



Martinez eta Gomez gimnastak. LOKE GIMNASTIKA

B2 taldeak bederatzigarren postuan sailkatu ziren.

## Irakurketa ona

LOKEko arduradunak pozarren daude gimnasta guztiek eginda lanarekin.

Arduradunek jubenil mailako Ambar Rodriguezen hirugarren postua nabarmendu dute. "Lehen urtea da bakarka lehiatzen dena, orain arte taldearekin egongo da lanean".

Era berean, "kadeteen postuak onak ez diren arren, pozik gaude. Aurten lehiatu ahal izateko mailaz igo ditugu-eta," adierazi dute entrenatzaileek.

Horrez gain, aurten kirolariak prestatzeko zailtasunak izan dituzela jakitera eman dute LOKE gimnastikako kideek. "Eusko Jaurlaritzaren protokoloa jarraitu dugu eta 2020ko martxotik hona hilabete gutxi izan ditugu txapelketa prestatzeko".

## Kirol dirulaguntzen eskaera epea ireki du Lasarte-Oriako Udalak

Udalak jakitera eman duenez, 2021eko maiatzaren 12an, Lasarte-Oriako Udala Kirol Zerbitzuaren 2021eko diru-laguntzen deialdia argitaratu zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horren arabera, udalak aurten lau laguntza mota eskainiko ditu. Laguntza arruntetarako 65.000 euroko poltsa izango da. Laguntza puntaletara 9.900 euro eskainiko

ditu udalak. Emakumeen kirol federatuaren sustapenerako, berriz, 10.000 euro bideratuko ditu eta Jon Tecedor dirulaguntzarako, 1.800 euro.

Eskaerak aurkezteko epea ireki da eta 2021eko ekainaren 23a izango da azken eguna. Justifikazio-kontuak aurkezteko azken eguna 2021eko irailaren 30a izango da, urtearen azkeneko hiruhilekoan garatuko diren jarduerentzat eta programentzat izan ezik. Horiek 2022eko urtarrilaren 31ra arte dute epea.


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Eider**  
Zorionak sorgina!!!  
Zure 18 urtebetetzean.  
Oso ondo pasal!!! Zure familia.



**Maddi**  
Zorionak printzesita! 8 urte zoragarri zurekin!  
Asko maite zaitugu!  
Unax, Oier, aita eta ama.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberrak ere

### Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.




## Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 21




### Larunbata, 22




### Igandea, 23




### Astelehena, 24




### Asteartea, 25



### Asteazkena, 26



### Osteguna, 27



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	DE ORUE	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 22	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 23	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 24	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 25	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 26	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 27	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APP-A** eskuragarri app store edo android marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## SUDOKUA

5		8	4	7				3
		7		3				6
	3		2	6	8	7	5	
7				8		4	3	
3		6	7		4		1	8
	2		3	1			7	
9			1		7			
	7		8			9	4	1
	1	5		9		8	2	

## OHARRA

### Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea irekiko du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahalko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarte bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan.

### Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri TXINTXARRI aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZTA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

**ERRENTAN EMAN**  
Garaje bat alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa.  
Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.  
Garaje bat alokatzen da Donostian, Antigua auzoko Iruña kalean. Harremanetarako zenbakia, 671 60 57 31.  
Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia, 648 20 08 11.

### LANA

**ESKAITZA**  
Zaintzailea behar da adineko bi pertsona zaintzeko, interna modura, osasun-bazkide ziurtatua, esperientzia eta adinekoak zaintzeko gomendioak dituena. Harremanetarako zenbakia, 685 70 44 40.

### ESKARIA

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest.  
Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.  
Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein

ordutan lan egiteko prestutasuna.  
Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.  
Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko. Orduka edo externa gisa lan egiteko.  
Harremanetarako zenbakia, 663 49 98 41.  
Adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko nuke. Orduka edo externo gisa lan egin nahiko nuke.  
Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire burua. Paperak eguneratuta dauzkat.  
Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.  
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan.  
Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.  
Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak

egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.  
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.  
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

egin ditu. Beti garajea gordeta. Oso ondo zaindua, oso egoera onean dago.  
Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.  
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseoa aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.  
Bizikletari lotzeko erremolkeak doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inungo konpromezurik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurrpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

### SALEROSKETA

**SALDU**  
CITROEN C3 kotxe berria salgai. Urtebete soilik. 1.000 km egin gabe. Egoera pertsonalagatik saltzen dute.  
Harremanetarako zenbakia, 687 35 50 95.  
Mitsubishi Montero 2.5 TDI GLS motza salgai. 24 urte ditu eta 162.000 km.



## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galarzi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzaleak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide  
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz  
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,  
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

### Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 21

**LASARTE-ORIA Dokumentala**  
Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak *Ocupacion SA* dokumentala eskainiko du. Ostean, Juan Soroeta Nazioarteko zuzenbide katedradunarekin solasaldia izango da. Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

## LARUNBATA 22

**LASARTE-ORIA Bilera**  
Lasarteko neska\* gazteak antolatuta daude eta kurtso bukaera honetan bilera irekia antolatu dute. Antonio Mercero aretoa, 11:00etan.

**LASARTE-ORIA Tailerra**  
Auzoz auzoko tailerrek antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Horietaiko bat izango da kotoizko jantzien tindatze sortzailea ikasteko saioa. Atsotabar parkea, 11:00etatik 13:30era.

**LASARTE-ORIA Tailerra**  
Auzoz auzoko tailerren barruan, ipuin-kontalari saioa izango da. Euria egingo balu, pilotalekuan egingo da egitasmoa. Zabaleta auzoa, Basotxo plaza, 12:00etatik 13:00etara.

## ASTEAZKENA 26

**LASARTE-ORIA Mahai-ingurua**  
Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako *Herrigintzen* mahai-inguru sortaren barruan, *Udaletik,*



**LASARTE-ORIA Antzerkia.** Elur *Esnatu naiz* kabareteko protagonista dugu. Londresko The Pink Flamingo klubean egiten du lan. Bere showa izatea lortu du. Gauero jende asko joaten da bera ikustera. Duela hamar urte utzi zuen baserria eta bere bizitza asko aldatu da. Bere bizipenen kontakizuna egiteaz gain, hainbat gai zehatzei buruzko hausnarketa egingo du Elurrek obra honetan. Galdera sakonak proposatzen ditu: harreman sozialak, generoa, auto-estimua, lotsa eta beldurrak, sexualitatea, sorkuntza, bizipoza... Eta gizartearen errotuta dauden hainbat ohitura ere zalantzan jarriko ditu. Manuel Lekuona kultur etxea, ostirala, 19:00etan.

*eskolatik, herrigintzatik... Herri hezitzaileak sortzen gaia jorratuko da. Eman izena 683 31 98 21 zenbakira edo [lasarte-oria@ehbildu.eus](mailto:lasarte-oria@ehbildu.eus) helbidera idatziz.*

Osasun zentroko 2.solairuko gela balioanizta, 18:00etan.

## OSTEGUNA 27

**LASARTE-ORIA Mahai-ingurua**  
*Herritarren parte-hartzea politika publikoetan: zertaz ari gara, nola eta zertarako?* mahai inguruak Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako *Herrigintzen* solasaldi-sortari amaiera emango dio. Eman izena

683 31 98 21 zenbakira edo [lasarte-oria@ehbildu.eus](mailto:lasarte-oria@ehbildu.eus) helbidera idatziz. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

**LASARTE-ORIA 'Kutxa Bira'**  
Euskal Herritik eta diasporatik biraka dabilen kutxa Lasarte-Oriara iritsiko da. Ekitalditxo bat egingo da kutxari harrera egiteko. Lasarte-Oriako hainbat eragile eta elkarte parte hartuko dute. Eguraldi txarra egin ez gero, Oriarte BHI Landaberri eraikinean egingo da. Parte-hartzaileez gain, ezingo da ikuslerik bertaratu ekimenara. Iparra-Hegoa elkarteak sustatutako egitasmoa. Tximistarreta parkea, 20:00etan.

## ZINEMA

LASARTE-ORIA	ANDOAIN	ASTIGARRAGA	HERNANI
MANUEL LEKUONA	BASTERO	ERRIBERA	BITERI
<b>Tom eta Jerry</b> Igandea: 17:00.	<b>Crock Of Gold: Bebiendo con Shane Macgowan</b> Larunbata: 19:00. Astelehena: 19:00.	<b>Kranston ikastetxea: Munstroen eskola</b> Larunbata: 17:00.	<b>Nomadland</b> Larunbata: 19:00. Igandea: 19:00. Astelehena: 16:30.
<b>Una joven prometedora</b> Igandea 30: 19:00.			



## LABURPENA

**Tom eta Jerry**  
**Zuzendaria:** Tim Story. **Gidoia:** Kevin Costello. **Prestsonaiak:** William Hanna, Joseph Barbera. **Argazkia:** Animazioa; Alan Stewart. **Musika:** Christopher Lennertz. **Herr.:** AEB (2021). **Antzezleak:** Animazioa; Chloë Grace Moretz, Michael Peña, Rob Delaney, Colin Jost, Ken Jeong, Pallavi Sharda, Jordan Bolger, Daniel Adegboyega, Ajay Chabra, Janis Ahern, Leandra Ryan, Jeremy Ang Jones. **Iraupena:** 101 minutu.

## Katua eta saga, berriro ere, borrokan

Etxeko txikiek animazioa eta pertsonai erreala nahastu dituen *Tom eta Jerry* filmaz gozatuko dute igandean.

Tim Storyk zuzendutako film honek *Tom & Jerry* marrazki telesail klasikoetako pertsonaia nagusietan dago oinarritua eta Tom katua eta Jerry saguaren arteko lehia maitagarri jarraipena ematen dio.

Mendeko ezkontza garrantzitsuenaren bezperan, Jerry New Yorkeko hotelik onenera bizitzera doanean. Ezkontza-planifikatzaileak ez daki zer egin eta azken aukera bezala, Tom

kontratzen du, hura gainetik kentzeko. Katuaren eta saguaren arteko ondorengo borroka, planifikatzailearen karrera, ezkontza eta, beharbada, hotela bera suntsitzearekin mehatxatzen du. Horrez gain, arazo are handiago bat sortzen da: hiruren aurka azpijokoan dabilen langile bat.

Zinema Euskaraz programako filma dugu. Egitasmo honi esker, haur eta gazteei zuzendutako pelikulen bikoizketa bultzatzen du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak, eta euskara sustatzen du zinemagintzan.

## Mendebaldeko Sahararen egoera aztergai

Maiatzaren 21ean, ostiralarekin, emanaldia eta hitzaldia antolatu ditu Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak, Antonio Mercero gunean, 19:00etatik aurrera. *Ocupacion SA* dokumentala proiektatuko dute, eta amaitzean, Juan Soroeta Nazioarteko zuzenbide katedradunak solasaldia eskainiko du. Sarrera doakoa izango da, aforoa bete arte.

Duela 45 urte, ordura arte Espainiako "53. probintzia" izan zena monarkia alaiak anexionatu zuen Espainiaren, Mauritiari eta Marokoren arteko hiruko akordioaren bidez. 45 urte geroago, XXI. mendean ongi sartuta,

deskolonizazio-egoera horrek bere horretan dirau. Mundubat euskal GGKEaren eta Brasilgo Forward Films ekoiztetxearen *Ocupación S. A.* proiektuak "traizio historiko" baten kontakizuna aurkezten du, eta izen-abizen espainiarrak jartzen dizkio nazioarteko legeak urratzen dituen eta Afrikako azken koloniaren (Mendebaldeko Sahararen) harrapaketa eragin duen espolioz isilarazi bati.

Film labur dokumentalak Espainiako enpresek Mendebaldeko Sahararen irabaziko egitura desestaltzen eta erakusten du ikus-entzunezko formatuan lehen aldiz.

Egitura hori, nolahi ere, Espainiako historiaren alderdirik estali eta isilarazienetako bat da. Nazioarteko legeen edo estruktibismoaren arloko adituek, ekintzaile sahararrek, kazetariak eta ordezkari politikoei Espainiako botere politikoen eta IBEX35 boteretsu eta ukiezineko enpresen arteko maite-jokoan berri ematen dute.

Harreman hori frankismoaren garaian erroto zen, eta hainbat hamarkadatan luzatu da nazioarteko legeak urratzen dituen, lurraldearen okupazioa bideragarri egiten duen eta Marokoko Erresumak saharar herriaren oinarriko eskubideak urratzea dakarren sistema bidegabe eta opaku batean.



# LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

## GREMIOEN GIDA



Herriko GIDA KOMERTZIALA  
sarean ikus dezakezu  
[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943 361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 606 686 615 eta 943 36 17 52.  
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

ANTONIO ARREGUI, S.L. **AA** eraikuntza materialak  
IGAMIA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA  
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2  
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47  
[aarreguis@gmail.com](mailto:aarreguis@gmail.com) Faxa: 943 36 59 47

**Urantz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZA
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640  
[urantz@urantz.com](mailto:urantz@urantz.com) - [www.urantz.com](http://www.urantz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com) (on-line denda)

**ANORGATXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-ibxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

**ISU**  
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behea. LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943 366 495  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Gida honetan  
azaldu nahi  
baduzu jar  
zaitez gurekin  
harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
Hurrengo GREMIOEN GIDA ekainaren 25ean kaleratuko dugu